SGAE Fundazioak, ikus-entzunezko interes bereziko generoen barnean dokumentala sustatzeko helburua betez, abian jarri du "SGAE Dokumentalak 2026" programarako deialdia, obrak jaso eta aretoetan emateko xedearekin.



sgae Dokumentalak 2026

OINARRIAK

01 Deialdi hau abian jarri da honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten dokumentalen zuzendari guztiek parte-hartzeko:

- Esklusiboki SGAEko bazkide izatea.
- SGAEko bazkide izan ez arren, bazkide izateko izapideak egiten aritzea, sartzea eskatu dutelako. Hortaz, sartzeko eskaeraren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Honako hauek ezingo dira aurkeztu: SGAEren Zuzendaritza Batzordeko kideak, SGAEren Ikuskaritza Batzordeko kideak, SGAE Fundazioaren Patronatuko kideak eta SGAEren lurralde kontseiluren bateko kideak.

Materialak obraren zuzendariaren izenean aurkeztu behar dira; hala ere, banatzailearen harremanetarako datuak erantsi ahalko dira.

02 Aurkezturiko dokumentalak gai librekoak izan daitezke —filmatze-formatua edozein dela ere—, gutxienez 45 minutuko iraupena izango dute eta 2025eko urtarriletik aurrera ekoitziak izango dira; ez da mugatuko parte-hartzaile bakoitzaren obra-kopurua.

Dokumentalek originalak izan beharko dute. Ez da onartuko dagoeneko existitzen diren dokumentalen egokitzapenik edo beste bertsiorik, ezta zuzendari berarenak badira ere.

03 Parte-hartzaileek beharrezko eskubide guztiak izan beharko dituzte aurkeztutako obren gainean, dokumental- emanaldien eskubideak barne, eta SGAE Fundazioa berariaz salbuetsiko dute horien gaineko edozer erreklamazio sortuz gero.

04 Gaztelaniaz filmatuta ez dauden lanak hizkuntza horretan azpidatzita aurkeztu beharko dira. Proiekziorako, 35 mm-ko euskarria edo DCP edo Blu-ray-ren gainean egindako kopia masterra onartuko dira; antolatzaileak aretoko proiekzio-formatua ezarri ahalko du, eraginkortasun hobearen arabera, autoreak emandako euskarria oinarri harturik.

05 Lanak bidaltzeko, dokumentalaren fitxa tekniko-artistikoarekin batera, nahitaez aurkeztu beharko da oinarri hauei erantsita doan partaidetza fitxa edo fitxan eskatzen den informazioa dakarren dokumentu bat. Eskatutako informazioa mezu elektroniko baten bidez bidali beharko da, eta lana ikusteko esteka bat.

06 Lanak telematikoki aurkeztuko dira, posta elektroniko honen bidez: audiovisuales@fundacionsgae.org. Mezu elektronikoaren gaia "SGAE Dokumentalak 2026".

07 Deialdi honen aurkezpen-epea 2026ko apirilaren 28an zabalduko da, eta 2026ko maiatzaren 26an itxiko da.

Aurkezpen-epea itxita, SGAE Fundazioak hautaketa-batzorde bat/epaimahai bat eratuko du non zinemagintzan prestigioa duten profesionalek parte hartuko duten. Batzorde horrek eskaerak aztertu eta dokumentalak hautatuko ditu, eta aukeratutako zuzendariei horren berri emango die.

08 Dokumentalen aukeraketa egitean, antolatzaileak eskubidea izango du gutxieneko kalitaterik ez duten obrak baztertzeko, erakustaldi-saio bakoitzaren diseinu-irizpideari jarraikiz, zeina SGAE Fundazioak ezartzen baitu esklusiboki. Era berean, aukeratzeko lehenespen-balioa zera izango da, oraindik aretoetan estreinatu gabeko dokumentalak izatea.

09 Aukeratutako dokumentalak Madrilgo Berlanga Aretoan proiektatuko dira 2026an, eta proiektatu ondorengo sei hilabeteetan, SGAEren/SGAE Fundazioaren menpekoak diren Espainiako beste areto batzuetan birprogramatu ahalko dira. SGAE Fundazioak zuzendariaren eskura jarriko du proiekzio-aretoa proiekzio bakoitzerako behar diren baliabide teknikoekin eta giza baliabideekin; baita saio bakoitzera sartzeko doako sarrera batzuk ere hautatutako autore bakoitzarentzat.

10 Hautatutako lan bakoitzaren eskubideen titularrak 200 € garbiko konpentsazio ekonomikoa jasoko du bere obrarekin egiten den pase bakoitzean emanaldi-eskubideen kontzeptu moduan. Konpentsazio hori jasotzeko, sinatuta izan behar da baimentze-kontratua, eta aurkeztuta faktura —indarrean den araudiak eskatzen dituen baldintza guztiekin— eta beharrezko dokumentazio fiskal guztia.

11 Parte-hartzaileek baimena ematen diete SGAEri eta SGAE Fundazioari beren ikus-entzunezko obraren zati bat zein dokumentalaren argazkiak eta/edo fotogramak edozein komunikabidetan erabil ditzaten sustapen-helburuetarako, online komunikabideak barne. Erabilera hori emango zaio ekimen honen etorkizuneko edizioen sustapenetan ere.

12 Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa eta horren erakunde kolaboratzaileak salbuesten dituzte erantzukizun orotatik baldin parte-hartzaileetakoren batek plagioa egiten badu edo indarrean den legerian arauren bat hausten badu.

13 Parte-hartzaileek beren borondatez ematen dituzten datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, eta fitxategi horren arduraduna SGAE Fundazioa izango da. Datuok eskatzaileak deialdi honetan duen parte-hartzea kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen titularrak eskubide hauek ditu: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko, datuen aurka egiteko, datuak eramateko eta erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko. Eskubide horiek guztiak egikaritzeko, idatziz jo dezakezu helbide honetara: SGAE Fundazioa, Zerbitzu Juridikoei, Bárbara de Braganza 7, 28004 Madril. Idazkian izen-abizenak adierazi beharko dira, bai eta zein eskubide erabili den eta zergatik. Idazkiarekin batera NAN/AIZ edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat eta gaur egungotzat hartzen ditu. Interesdunak bere gain hartzen du aldaketa gertatzen den unetik horren berri emateko betebeharra.

Parte-hartzaileek baimena ematen diote SGAE Fundazioari eurei edo/eta euren argazkiei buruzko informazio profesionala zabaltzeko, helburu bakarrarekin: jendeari ezagutaraztea eta publizitatzea beren arlo profesionalean.

14 Arau orokorrak:

A. Parte-hartzaileek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, erabat onartzen dituzte oinarri hauek, baita SGAE Fundazioaren erabakiak ere.

B. Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, bai parte-hartzaileak, bai antolakuntza Madrilgo Auzitegien jurisdikzioaren mende izango dira. Uko egin beharko diote, beraz, dagokien eskumenari.

MATERIAL BIDALKETAK

SGAE Fundaziora, postontzi honetan:
audiovisuales@fundacionsgae.org
gaian "SGAE DOKUMENTALAK 2026" jarrita

INFORMAZIOA

Interesdunek kontsultak egin eta oinarri hauei buruzko informazio gehiago jaso ditzakete helbide hauetan:

audiovisuales@fundacionsgae.org

Tel. 91 503 68 00

www.fundacionsgae.org
www.sgae.es

sgae audiovisual

fundación sgae fundazioa sgae



sgae Dokumentalak 2026

IZENA EMATEKO FITXA

ESKATZAILEAREN DATUAK (DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA)

Izen-abizenak .....

Helbidea.....

PK ..... Udalerria.....

NAN .....

Telefono finkoa ..... Telefono mugikorra .....

Helbide elektronikoa .....

DOKUMENTALAREN DATUAK

Titulua .....

Iraupena..... Ekoizpen-urtea .....

Dagoeneko estreinatu den obra bada, eman estreinaldiaren dataren eta tokiaren xehetasunak.....

Filmatze-formatua .....

Proiekzioaren formatu eskuragarria .....

Fitxa honen sinaduraren bidez, eskatzaileak baimena ematen dio **SGAE Fundazioari** bere datu pertsonalak erabil ditzan honako honetarako:

· Edozein baliabide fisikoren edo digitalen bidez deiak, jakinarazpenak eta ohartarazpenak jasotzeko, "**SGAE Dokumentalak**" proiektuan izango duen parte-hartzea kudeatzeko.

· Edozein bide erabiliz zuzendariaren datu biografikoak zabaltzeko, bai eta haren argazkiak eta irudiak ere, "**SGAE Dokumentalak**" proiektuaren barruan bere dokumentala erakustearen harira.

· **SGAEk** eta **SGAE Fundazioak**, eskaintzen dituzten onura kultural, promozional eta asistentzialen gaineko informazioa jasotzeko, baita informazio- eta komunikazio-buletinak ere.

SGAE Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, Espainiako Zuzenbidearen arabera eratu zena, fundazio baten forma juridiko baten arabera, eta Fundazioen Erregistroan behar bezala inskribatuta dagoena 314. zenbakiarekin. Egoitza sozialaren helbidea honako hau da: Bárbara de Braganza 7; eta IFK-zenbakia du: G-81624736.

Honako helburu hauek ditu, besteak beste: ikus-entzunezko obrak eta horien autoreak sustatzea, obren sustapen kulturala egitea horiek birbaloratzeko eta zabaltzeko, eta SGAEren bazkideen eskubide moralak defendatzea. Horretarako, besteak beste, honako jarduera hauek egiten ditu: laguntzen, sarien, lehiaketen, jaialdien eta formakuntza-jardueren deialdiak eta autore-eskubideak zabaltzea, baita horiek gauzatzeko behar diren kudeaketa- eta administrazio-ekintza guztiak ere.

Dokumentu hau sinatuz gero, **ESKATZAILEAK BADAKI ETA ULERTZEN DU BAIMENA EMANDA** dokumentu honetan ematen diren datuak **SGAE Fundazioaren** fitxategi batean gordeko direla; datu horiek soilik eta berariaz erabiliko dira proiektu honetan egiten duen parte-hartzea kudeatzeko eta **SGAE Fundazioaren** eta **SGAEren** jardueraren gaineko aldizkako informazioa bidaltzeko. Era berean, badaki **SGAE Fundazioak** bere izaera pertsonaleko datuak jakinarazi ahal dizkiola **SGAEri**, egile-eskubideen kudeaketa kolektiboko zerbitzuak emateko.

Formulario honen bidez, **BERARIAZ BAIMENTZEN** bere datuak helburu horietarako erabil daitezen. Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (pertsona fisikoak babesteko datu pertsonalen tratamenduari buruzkoak) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta xedapen osagarriek arautzen dutenarekin bat etorriz, **BADAKI** eskubidea duela SGAE FUNDAZIOAk dituen datuetara sartzeko, datuok zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko, eramateko eta erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko; horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du, bere izenabizenekin, helbidearekin eta NANaren fotokopiarekin batera, gauzatutako eskubidea eta horren arrazoia adieraziz, honako helbide elektroniko honetara: **informacion@fundacionsgae.org.** Era berean, **BADAKI** erreklamazioak aurkeztu ditzakeela Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

SGAE Fundazioak gorde egingo ditu emandako datuak, baldin eta **SGAE Fundazioaren** jardueren gaineko informazioa jaso nahi badu, eta aipatu baimena baliogabetzen ez badu; hori egin nahi izanez gero, behar bezala jakinarazi beharko dio **SGAE Fundazioari**.

..... (e)n, 2026ko ..... -ren .....(e)(a)n

Sin. Jn./And.